

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako eta Gipuzkoako osasun-langileek Goizuetako eta Aranoko biztanleen historia klinikoak partekatzen dituzte

Pazienteen segurtasuna eta jarraipen medikoa hobetuko dira horrela, Donostia Unibertsitate Ospitalean jasotzen baitute arreta espezializatua

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 3

Goizuetako kontsultategian lan egiten duten osasun-arloko langileek Goizuetako eta Aranoko bizi diren eta Donostia Unibertsitate Ospitalean eta inguruko zentroetan laguntza mediko espezializatua jasotzen dutenen historia klinikoak ikusi ahal izango dituzte aurrerantzean. Halaber, azken laguntza-zentroetako langileek pazienteen Osasunbideko historia klinikoak ikusi ahal dituzte.



Koordinazio-bileran izan diren Nafarroako eta Gipuzkoako osasun-langileak.

Hala, bi herrietako 688 biztanleen segurtasuna eta jarraipen medikoa hobetuko dira. Izan ere, gertutasuna dela eta, aipatutako zentroetan jasotzen dute espezialisten arreta, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko osasun-laguntzako lankidetzaren hitzarmenari esker. Orain arte, txosten medikoetan jasotako edo pazienteak ekarritako informazioa besterik ez zeukaten Goizuetako osasun-langileek. Baina, hemendik aurrera, historia klinikoan eta izandako kontsultetan gehitutako txosten medikoak eskuratu eta ikusi ahal izango dituzte.

Bi osasun-zerbitzuetako ordezkariak eta arreta ematen duten osasun-langileek bilera egin dute berriki Goizuetan, batak besteari historia medikoak eskuratzeko protokoloak zehazteko, sarbidea ahalbidetzen duten sistema informatikoak ezagutzeko eta sor litezkeen gorabeherak konpontzeko neurriak ezartzeko.

Zehazki, honako hauek izan ziren bileran: Borja Azaola Nafarroa Iparraldeko Lehen mailako Arretako zuzendariordea; José Javier Echeverría Goizuetako medikua; Inmaculada Vélez de Mendizabal Goizuetako erizaina; Ana Bustinduy Donostialdea ESiko zuzendaria; Ramón Lerchundi Donostialdea ESiko informazio-sistemen zuzendariordea; Patricia Arbeloa Osasun Alorreko Informazio Sistemen Zerbitzuko teknikaria, eta Agurne Oronoz Goizuetako landa-eremuko laguntzarako erizaina.